

## **IURRETAKO ESKOLAKO AGENDA 21EN BIGARREN**

### **FOROA**

**2008ko ekainaren 11n**

#### **PARTE HARTZAILEAK**

- Iurretako Udala: Ainhoa Albizuri (Zinegotzia) eta Mikel Pagonabarraga (Teknikaria)
- Juan Orobiogoitia Institutua: Irakasleak eta ikasleak
- Maiztegi eskola: Irakasleak eta ikasleak
- Durangoko Merinaldeko Amankomuazgoa: Ismene Mandaluniz (Durangaldeko Udaltalde 21eko Teknikaria)

#### **GAI ORDENA**

1. Ongi etorria
2. Ikastetxeetan 2007/08 ikasturtean egindakoaren azalpena
3. Lehenengo foroan aurkeztutako proposamenen erantzuna
4. Eskerrak eta agurra

## **AZALDUTAKO EDUKIAK ETA HARTUTAKO ERABAKIAK**

Lehenengoa.- ONGI ETORRIA

Ainhoa Albizurik ikasturteko bigarren forora bertaratutako guztiei ongi etorria eman die.

Bigarrena.- IKASTETXEETAN 2007/08 IKASTURTEAN EGINDAKOAREN AZALPENA

MAIZTEGIkoek batzordea sortu dute eta ikasle ordezkarien ardurak ezarri. Motibazio fasearen ostean diagnostikorako galdetegia pasatu dute helburuak ezartzeko. Emaitez zera diote: elektrizitate eta gasolio kontsumoa jaitsi behar dutela. Horretarako konpromisoa hartu dute.

JUAN OROBIOGOITIAkoek ura, hamarretakoa, materiala eta partaidetza aztertu dituzte. Adierazle kuantitatiboak ezarri ostean aholkuak jakinarazi

dituzte: dutxatzean txorrota itxi, dutxa laburragoak hartu, bollo gutxiago jan, hamarretakoa birziklatu eta gelen zaintzarekin jarraitu.

Hirugarrena.- LEHENENGO FOROAN AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN ERANTZUNA

Honen ostean proposamenen erantzuna jaso dute foroetara joandakoek (ikusi buletina).

Laugarrena.- ESKERRAK ETA AGURRA

Ainhoak parte hartzaileei ikasturte osoan egindako lanagatik eta proposamenengatik eskerrak eman dizkie eta datorren ikasturterako gonbidatu ditu.